

EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOAREN “MUSIKA GELA” 2022-2023

Musika Gela-ren beste edizio bat Euskadiko Orkestrarekin. Beti ematen dit poza Batzar Nagusien babesak haur eta gaztetxoei musikaren kultura emateko ekimen honi.

Batetik, euskal musikaren altxorak eta munduko musikak belaunaldi berriei erakustea eta musika onaz gozatzea eginkizun garrantzitsua delako gure herrian, edozein tokitan bezala. Eta bestetik, musika-sena esnatzen laguntzen duelako eta esnatze horretan gizaki egiten gaituzten balio onak eta sakonak lantzen direlako, elkarrekin bizitzeko, elkarte bat osatzeko, herria egiteko. Gauza handia da musika kultura, eta gauza bikaina ekimen hau, Musika Gela.

Aurreko batean, Pello Esnalen artikulua bat irakurri nuen: “Artistak” zuen izenburua. Eta haur txikiek eskolan marraztearen esperientziaz ari zen, umeek izaten duten poza, egin dituzten marrazkiak gurasoei eta aiton-amonei erakustean. Dena ematen dutela, hustu egiten direla marrazten dutenean.

Hauek irakurri nituenean musikarekin ume-umetan zer bizitzen duten pentsatzen jarri nintzen. Ikustekoa da haurrak nola egoten diren, harrapatuta. Musika irakasle bati entzunda nago haurrek **entzuten ikasteko eskola ere badela musika**. Musikarik ez dago soinua jo gabe, baina ez dago musikarik isiltasunik gabe ere, entzuteak berekin duen isiltasun hori gabe.

Entzutearen artea, isiltasuna egitearen artearekin, haurren barruan musika-gaitasun eta musika-dohaina esnatzeko eskola aparta da. Eta hori entrenamendu aparta da musika-tresnen eta ahotsen soinua **deskubritzeko**, txikitatik. Eta musika-lan zoragarrietan murgilduz, ikasiko dute konpas eder batzuei **adi egoten, gelditzen, itxaroten ... Hori dena ikasi egiten baita, umetan**. Eta horrela, ikasiko dute musika **dastatzen** eta **gozatzen**.

Egiaz, oso ariketa aberatsa da kultura musikala hartzea, **humanizatzen** laguntzen baitigu musika onak: **entzuten** erakusten digu, **heldu izateko eta elkarri errespetua** edukitzeko hain beharrezkoa; musika entzunez **isiltasuna** egiten ikasten digu, **zaratak irentsita ez bukatzeko**; kultura musikalak gozamina **itxaroten** erakusten digu eta, horrela, **giza prozesuen erritmo mantsoak errespetatzen, presaren arinkerian ez amiltzeko**; azkenik, haurrek eta gaztetxoek, musika-bizipenak **elkarrekin** izanez, lagunartea egiten dute **egungo indibidualismoaren aurrean**.

Hau ez da pribilegiatu batzuen kontua eta bakan batzuen dohaina. Ez. Jende guztiak du musika sena. Izan ere, giza ariman dago musika, eta baita herrien ariman ere. Eta sena iratzarritz, batzuei musika sortzeko edo musika jotzeko gaitasuna jaioko zaie. Baina musika dastatzeko eta gozatzeko gaitasuna, guztiei. **Denok daukagu erregalo hori**.

Sinetsita nago Euskadiko Orkestrak gure haur eta gaztetxoei musika entzuteko artea erakutsiz, **gizatasunaren eskalak igotzen** laguntzen diela belaunaldi berriei. Musika entzutea, deskubritzea, gustatzea. Ze esperientzia ederra eta aiantzi ezina.

Beraz, **eskerrak** eman behar dizkiot gure Orkestra nazionalari, eta baita ikastetxeei ere, Musika Gelaren ekimen hau gauzatzen dutelako. Eta Batzar Nagusien **babesa** adierazi ikasturte honetarako ere.

XABIER EZEIZABARRENA

Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakaria

2022.10.14